

# SPRINGBOARD

## BIO\_LEIP

erakusketa kolektiboa

Gruppenausstellung

zuhar iruretagoinea labega

eriz moreno

helena goñi

karlos martinez bordoy

oihane sanchez duro

Georg Oberhumer

Rania Akl

Romy Julia Kroppe

Stefanie Schroeder

Max Baitinger

Andreas Schuster

Marike Schreiber

Yvonne Anders

**OKELA**

San Frantzisko kalea 11 behe  
Bilbo  
Euskal Herria

**PRALINE**

Lützner Str.39  
Leipzig  
Germany

Praline Leipzig hiriko arte espazioa Bilbo hirian kokaturiko Okela espazioko atea jo eta ekarlanean Springboard izendaturiko erakusketa prestatzea otu zitzaion. Erakusketa honek artisten lan baldintza prekarioen inguruko hausnarketa bat proposatzen duen eina, esperantza hariak josten ditu, agian, artearen merkatutuik at, arte esparru independenteek izan zezaketeena.

Ba al dute artistek hirigintza planekin zer ikusirik, loturarik? Kultura independenteak sekulako papera jokatzeko du egun mundu osoan zehar garatzen ari den gentrifikazio prozesuetan, hiri-azulo edota, kasuan kasu, hiri osoetan ematen ari dena. Aipaturiko bi kolektibo hauek espazio independente gisa sortu ziren, Praline Leipzig-Lindenau azulo problematikaren ondorioz, OKELA ordea antzinako harategi bati bizia emanez. Nahigabe, nahita edota nahitanahiezko egoera betek bultzatzuta beraien inguruko egoera sozial eta kulturala bultzatu eta garatzeko asmoz jaio arren, aipaturiko prozesu honetan murgildu dira, errepresioaren eta aldaketaren artean kokaturik. "Shopping" -aren kontzeptua, erakusketa guztian zehar sentitu daiteke. Arte lan guztiak edizio mugatuko obrak dira, eta ondorioz, kontsumoaren zerbitzura dauden produktuak bilakatu dira. Lotura izan dezake bai Leipzigen zein Bilbon kokatutako antzinako oficina-denda hauek, egoera prekarizatu batean murgilduta dauden azuloetan, San Frantzisko kalea eta Lütznern Strasse-n arte espazio bilakatu izana.

(1) Bilbo efektu gisa izendatu dezakegu industrializazioaren galerarekin bat sortutako hiri proiektu berri honen sorrera, Guggenheim Museoa izanik proiektu honen historik adierazgarriena. Oihane Sánchez Durok (Bilbo) "Titanium/Titanium" izendatu du metal gainean eginiko collageak, bertan gaur egun desagindako Titan industrial ontzia ageri da, Bilboko portuaren itsasadarretik ontziak igarotzeko klabea izan zena, Guggenheim museoak duen fatxada espektakularren materialaren gisara. Paradojiko hiriaren garapen ekonomiko eta kulturalaren ikurtzat hartzen dena. Ohianeren obra memoria historikoaren inguruko arrazoibide dugu, arkitectura industrial eta tradizionalen inskribatzen dena, hiriaren berrikuntza urbanistikoaren ondorioz desagertzen ari dena.

(2) Zerbaitetan parte hartzearen nahiak partehartze beraren ondorioz zerbait hautsi daitekeela da "I Follow Rivers", Eriz Moreno Bilbotarraren proposamena. Leipzig hirian gentrifikaturiko Lindenau azuloan bizi edota lan egiten duten bost artistei erabilera bakarrek argazki kamera bat eman eta beraien egunerokotasuna kamera hauen bitartez dokumentatzea eskatu zion. Espazio bien aspaldiko izaera denda bat izanik, argazki kamara hauek bertaratzen direnek baino ezin izango dituzte eskuratu. Argazkiak eskuratzeko ordea, kamara bera objektu artistiko gisa hautsiko litzateke, kamera beraren edukia ezjakina izanik, eroslea espekulatzailerik bihurtzen da.

(3) Jariora, migrazioa eta aldaketa prozesuak dira era formal hutsean Rania ACL-ek (Leipzig/Beirut) adierazten dituen gaiak Etde 1 & 2, "La Rose des Dans" eta "Rose des Vents" lanetan. Bertan ipar orratzen mugimenduak itsasoaren mugimenduaren ondorioz eragindako arrasto grafikoak ageri dira Mediterraneoaren itsasoan zehar gertatzen ari denaren metafora bezala.

(4) Helena Goñi-ren (Bilbo) proposamenak aldaketa prozesuen errepresentazioa dakarkigu, arte lan baten erreproduzioaren limiteak agerian utziz. Artistak, "Torniquet", bere piezarik garestiena zuri beltzean fotokopiatzen ditu 78 aldiz, irudiaren tonua desitziaturatuz, baita irudiaren tamaina bera ere.

(5) Apropiazioaren mantra era erakargarri batean behin eta berriz errepikatzen den konponbide unibersala da, ia ia elementu erlijioso gisa ageri zaiguna. Garapen urbanistikoaren baitan herritar marginalizatuak ez lekuetan kokatzen ditu. Andreas Schuster -ek (Leipzig) otoitz egiteko errobera bat eraiki du, esperantzen eta desiren pieza honek biraketaren erresistentziaren bitartez, huek betearaziko dituen objektu gisa funtzionatzen du. "You are not alone" lanak, elkartasun kolektiboari dei egiten dio mundu digitaletan bakarrik egotearen ezintasunarekin alderatuz.

(6) Arrakastaren desiraz diahardu Stefanie Scroeder artistaren "A picture. Take 5" lanak. Telebistako extra modura finantziatzen du bere ekite artistiko prekarioa Stefanie-k. Erakusketan dagoen liburu animatuan, artista, argazkilari baten paperean sarturik antzezle bat izatera jolasten duen antzezle bat argazkitzen duen eszena baten dokumentazioan ageri zaigu. Liburu animatu hau bere lan artistikoaren bitartez bere lan erremuneratuaren inguruko hausnarketa bat planteatzen du.

(7) Max Baitinger (Leipzig) komikilariak bere lan egoera irudikatzen du Risograph "06/24/2015" marrazkian. arte ikasle baten bizimoduaren trantsizio garaiko profesionalizazio momentu bat irudikatzen du: lan baldintza prekarioen hobekuntza lortzeko lantoki baten eraikuntza, auto-optimizazioa. Behar eta perspektibak aldatzen ari dira, aukera guztiak frogatu dituzu, eta orain enpresari bat izatera behartua zaude.

(8) Zuhar Iruretagoiena Labeaga-k (Zarautz) "Time eccentric" deituriko lanean, edozein motatako garapenean ematen den iragankortasunaren fenomenoaren inguruan dihardu, hiru multzo bereiztu daitezkeelarik. Loratu eta bat hil egiten diren Agabe landareak, ehundaka urteren poderioz kobazuloetan sorturiko formak eta "olla expres" etan sukaldatzeko errezetak denboraren prozesua exigitzen ari dira. Guzti hauek elkarrekin ageri zaizkigu diapositibetan egindako collagetan, era berean diapositibak sortzearen denbora eta teknologiak dakarren arintasun digitalari buruz hausnartzera gonbidatzen gaituelarik.

(9) Romy Julia Kroppe "(Picture Archive No.1 / 09.14.2015)" lanaren bitartez artelanaren formari objektu materialaren tratamendua ematen dio. Irudiak parke bateko banku baten bitartez urbanismoaren balorazioaren inguruko autokonzientziaren ariketa bat erakusten du. Bertan jesarritako pertsonaren bitartez, bankuaren forma publikoa bereganatua izango da berriz ere. Urte batean zehar argiak eragindako kolore aldaketak erregistratzen dira impresio laserren bitartez. kapa ezberdinetan egindako transfer akrilikoak urteetan izan zezakeen higitea ekidingo du, superposizioaren bitartez irudiaren iluntasuna sortzen delarik.

(10) Karlos Martínez Bordoy-ren (Bilbao) praktetan ere gainbehera eta higidura ageri dira 2008-2015 urte bitarteetan erabilitako bakero hauetan. Sakeletan gorderik duade ikutzeko dauden baina aurkitu ezin diren txanponak. Bidai arrastoak dira, opariak, bazter ezberdinetako txokoak eta zoriaren eraginez aurkitutako momentuak. Sentitu dezakezu, baina ez eskuratu.

(11) "The festivals was the hard" lana Georg Oberhumer (Viena) artistaren eskutik datorkigu, kriptikotasun horri eutsiz. Fritz Wortruba idazle austriarraren tetxuetatik egindako testu muntaiak bisitarien artean banatuak izango dira kontsumorako objektu gisa.

"Springboard" erakusketa " you are not alone" erakusketa seriaren bait an bostgarrea dugu, kasu honeta Marike Schreiber eta Yvonne Anders-ek komisariatza lanetan aritu dira Okelako kideekin batera.

(Marcel Raabe)